

Gida

Konfidentziaztasuna eskola eremuan

Ikasleen funtsezko
eskubide bati buruzko
gogoetarako
orientabideak




FEVAS

 **Plena
inclusión**
Euskadi

Gida

Konfidentziaztasuna eskola eremuan

Ikasleen funtsezko
eskubide bati buruzko
gogoetarako
orientabideak



Gida hau egiteko lanean hauek hartu dute parte:

- Eguzkiñe Etxabe, FEVAS Plena inclusión Euskadiko eta APNABI- Autismo Bizkaiako Hezkuntza Saileko arduraduna.
- Lucía Soria, FEVAS Plena inclusión Euskadiko komunikazio teknikaria.
- Xabier Etxeberria, Deustuko Unibertsitateko Etikako Katedradun Emeritua.
- Rafael Armesto, abokatu eta Plena inclusióneko Jurista Sareko kidea.
- María Villarino, abokatu eta datuen babesean aditua.

Editorea:

FEVAS Plena inclusión Euskadi.
Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko
elkarteen euskal federazioa.

C/ Colón de Larreátegui kalea, 26 behea C

48009 Bilbo

Tfnoa.: 94 421 14 76

comunicacion@fevas.org

www.fevas.org

Lege gordailua:

BI-171-2017

2016



Honek finantziatua:



Aurkibidea

| | | |
|-----|--|----|
| 1 | Sarrera | 4 |
| 2 | Eremu teorikoa | 8 |
| 2.1 | Konfidentzialtasuna etikaren ikuspegitik | 9 |
| 2.2 | Konfidentzialtasuna eskubideen ikuspuntutik | 14 |
| 2.3 | Konfidentzialtasuna izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegia kontuan izanda | 16 |
| 3 | Kasuen azterketa eta gogoeta | 18 |
| 4 | Jardunbide onerako orientazioak | 30 |
| 5 | Boli gorria: laburpen gisa | 34 |





*“Konfidentziasuna
pertsonei duintasuna
errespetatzeko
modua da”*

Xabier Etxeberria,
Deustuko Unibertsitateko
Etikako Katedradun
Emeritua

1

Sarrera



FEVAS Plena inclusión Euskadik adimen eta garapen urritasuna duten pertsonen eskubideak sustatzen ditu.

Federazioa hauek osatzen dute: Apdema, Apnabi-Autismo Bizkaia, Aspace Bizkaia, Aspace Gipuzkoa, Atzegi, Donostiako Goyeneche Fundazioa, Atzegi Tutoretza Fundazioa, Usoa Tutoretza Fundazioa, Futubide, Gautena, Gorabide, Uribe Kosta eta Uliazpi.

FEVAS Plena inclusión Euskadin —Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarten euskal federazioan—, adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen eta beraien familiek dituzten laguntzak eta aukerak hobetzeko eta, gainera, pertsona guztiek beraien bizitza proiektuak aurrera eramateko aukera izango duten gizarte inklusiboagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa lortzeko, egiten dugu lan. Helburu horrekin, zenbait jarduketa ildo garatzen ditugu, horien artean lehentasunezko bat eskola inklusibo ereduaren erai-kuntzarekin erlacionatutakoa da. Eskola garaia oso garai garrantzitsua da gizakiaren garapenean eta, beste alde batetik, ezinbestekoa da eskubideak eta balioak izango dituzten eta desberdintasunaren aurrean errespetua izango duten herritarren oinarriak finkatzeko. Hori dela eta, hezkuntza komunitatea sentsibilizatzerazuzendutako zenbait ekintza zabaltzen ditugu. Irakasleen prestakuntza, materialen diseinua, ezagutzaren hedapena edo eskuliburu eta dokumentuen argitalpena dira garrantzitsuenetako batzuk.

Laneko ildo horrekin bat etorri, eskola inguruko konfidentziasunari buruzko gida hau egin dugu, irakasleei eta irakaskuntza taldeei zuzendutako baliabidea, beraien irakaskuntza jardunbidean, gida hori kontuan izan beharko luketen erabakiak izaten baitituzte egunero. Horren garrantzia hain handia denez, ikastetxeek alor horretako politika markatu beharko lukete baina, jarraibide horiek ez badaude ere, irakaskuntzako lanbideak hori bermatzeko neurriak hartzera behartzen du.

Dokumentu honen
helburua gai horri
buruzko gogoeta
bultzatzea eta
jarrera eta portaera
jakin batzuk guztiz
onartezinak direla
erakustea da.



Eskola eremuan konfidentziasuna errealitate konplexua da, eta are gehiago adimen edo garapen urritasuna duten ikasleei dagokienez. Sarritan irakasleak, harmonizatu behar dituzten bi helbururen artean tentsionatuta daude: alde batetik pribatutasunaren aurreko errespetua eta, bestetik, ikasle jakin baten ontasuna ikasle guztien ontasunaren aurrean, eta horrek datu pertsonal jakin batzuk ezagutu beharra eragin dezake. Inklusioari buruz ari garenean batez ere, desberdintasunari eskaini beharreko arreta espezifikoak ikasle guztiei eman beharreko hezkuntza alorreko erantzunarekin uztartu behar baita. Horrek, ebazteko bat ere errazak ez diren egoeren aurrean jar dezake irakaslea, helburu horietako bat ere ezin baita alborat.

Izan ere, hautabide horietarako protokolo orientatzaileak ezar daitezke, baina protokoloak, beraiek bakarrik, ez dira nahikoa. Abagune bakoitzak malgutasuna eta zuhurtzia edo jakitura praktikoa izango litzatekeena aplikatzea eskatzen du, asmo onez egindakoa eta juridikoki zuzena dena etikarekin uztartzeko.

Halaber, konfidentziasunak, Gida hau gainditzten duten beste eztabaida batzuk irekitzen ditu, adibidez, curriculumean sartzearen egokitasuna, ikasleak bere intimitaterako eskubidea eskatzen eta beste pertsona batzuen intimita-

teari buruzko konfidentzialtasuna gordetzen ikas dezan. Baita intimitate horren nondik norakoa familiekin argitzeko beharra ere. Familiak, batzuetan, gehiegikerietan erortzen dira datu batzuen zainketan. Ezagutuz gero beraien seme-alabentzat estigma bilaka daitekeen informazio pribatua, sentsiblea bada ere, ondo kudeatuz gero, egoerak normalizatzen eta hezkuntza errazten lagun dezakeen informazioarekin, nahas dezakete. Batzuetan, intimitatea gordetzeko xedez, gurasoek zerbait kontraesankorra eska dezakete, datu bat eremu pribatuan, erreserbatuan, egotea, baina irakasleek datu horren berri balute bezala jokatzeari.

Gida honen edukietan zentratuta, hiru zatitan egituratu dugu:

- **Eremu teorikoa:** konfidentzialtasuna etikaren ikuspegitik, eskubideen ikuspuntutik eta datuen babesari buruzko arategiaren arabera.
- **Kasu eta egoera errealetan oinarritutako gogoeta.**
- **Jardunbide onerako aholkuak.**

Ziurrenez, irakasleek euren burua islatuta ikusiko dute zenbait egoeratan, eta orrialde hauetan konfidentzialtasuna merezi duen seriotasunaz lantzeko zergatiak aurkituko dituzte. Hori da, gutxienez, gure helburua. Laburbilduz, eta apaltasunetik, gida honek irakaskuntzako jardunbide batzuei buruzko gogoeta egiten eta, beharrezkoa bada berriro planteatzen laguntzea nahi dugu, hezkuntza hobetzeko xedez.





2

Eremu teorikoa

Konfidentzialtasunak, pertsona batek «konfidentzia» gisa, erreserbatutako zerbait gisa, eman dituen intimitateko datuak ez zabaltzea eskatzen du. Esanahi zabalagoan, beste bide batetik etorrira ere, interesatutako pertsonak pribatutasunean gorde nahi duela dakigun edo horrela nahi dezakeela uste dezakegun informazioa ere jasotzen du. Beraz, konfiantza giroa eskatzen du, pertsona batengan “konfiantza” jartzen da.

Intimitatea konfidentzialtasunaren “eduki” gisa

- Intimitatea-privatutasuna, pertsonak era librean erreserbatzen duena da, beste batzuen mutur sartze posiblearen aurrean.
- Intimitatearen barruan dagoenaren kudeaketa autonomorako eskubidea inplikatzeko du, besteek horren berri izateari edo ez izateari dagokionez.

- Pertsona osatzen duen alderdietako bat da, oso garrantzitsua da bere heldutasunerako eta bere harreman inter-subjektiboetarako.
- Gehienetan intimitatearen parte bat hark ez zabaltzeko asmoz jakinarazten zaio norbaiti.

Intimitateak alderdi fisikoak, psikikoak, afektiboak, konbikzioei dagozkienak, bizitzeko moduei, joerei, esperientziei, jokaerei, osasun arazoei, jabetza pertsonalei... buruzkoak ditu.

Adierazpen Unibertsalean
aintzatetsitako giza
eskubidea da:
“Ez dago arrazoirik gabe
inoren bizitza pribatuan
sartzeko eskubiderik”.

Eskubide gisa, aldagai hauek jasotzen ditu:

- **Behaketarako eskubidea:** bizitza pribatuan era desegokian behatua ez izatekoa.
- **Konfidentzialtasunerako eskubidea:** beste pertsona batek gure esku utzi dituen intimitateari buruzko datuak isilpean gordetzeko.
- **Informaziorako eskubidea:** datu pribatu sentisiblei buruz gordetako informazioa ez da zabaldu behar.

Pertsonaren
intimitatea
zabaltzeak ondorioak
ditu. Era desegokian
behin kanpora
ateratakoa
ezkutatzea ezinezkoa
bilakatzen da

Konfidentzialtasunaren oinarriak

- **Duintasunaren balioa:** inor ez da helburu bat lortzeko baliabide edo tresna gisa tratatua izan behar.
- **Autonomia printzipioa:** pertsona orok du berari buruz edo berak dituen datuei buruz ematen dituen informazioen inguruko hedapen maila erabakitzeko eskubidea, geroago zehaztuko diren salbuespenak salbu.
- **Gaizki ez egitearen printzipioa:** sekreturako beharra ezartzen du, hedapenak kaltea eragiten baitie pertsonaren integritateari eta duintasunari.

Beste alde batetik, konfidentzialtasunaren beharra aukerazko baldintza da profesionalen ongizaterako ekintza era bikainean egin ahal izateko. Ongizaterako ekintza hori lortzeko beharrezkoa izaten da, sarritan, intimitatearen eremuan sar daitezkeen eta zabalduko ez diren datuak ezagutzea.

Arau moral gisa duen berezitasunean, konfidentzialtasun betebeharrak, beste pertsona batzuek helburu horrekin konfiantzaz jakinarazi digutena ez zabaltzeko eta zabaltzea saihesteko beharrera garamatza. **Konfidentzialtasun beharra automatikoa da profesionalengan eta ez duela berariazko eskaririk behar esan nahi du horrek.** Hala ere, une jakin batean, se-

nide bati, hezkuntzako egitekoren bat hobeto gauzatu ahal izateko, eskolan berez jakinaraziko ez luketen familiako bizitzako alderdiren bat jakinaraztearen komenigarritasuna adieraztea eska dezake. Dena den, beti ere haren erabakia errespetatu beharko da.

Konfidentzialtasun beharraren subjektua

Arau orokor gisa, profesional bakoitzak —konfidentzialtasun beharraren lehen subjektuak— bere lana behar bezala bete ahal izateko erabat beharrezkoak diren erreferentziak baino ez ditu ezagutu behar. Batzuetan, subjektu hori ez da norbanako bat, talde bat baizik. Talde hori irakasleek, espezialistek, jantokiko langileek... osa dezakete. Talde horrek ezagutzen ditu talde gisa lan egiteko ezagutu behar dituen datu guztiak, baina bertako kide guztiek datu horiei buruzko konfidentzialtasun behar



rra dute. Kontuz ibiltzea oso garrantzitsua da pertsona babesteko eta ez estigmatizatzeko, eta hori, familiek eta profesionalak ulertu beharreko zerbait da.

Hezkuntza prozesuaren barruan, eta ikasle baten onerako, informazio bat beste pertsona batzuei edo erakunde jakin batzuei zabaltzea beharrezkoa dela uste denean, ez da konfidentzialtasuna apurtzen aurretik, modu egokian, hedapen horretarako baimena eskatzen bada eta interesatutako pertsonen informaturiko baimena ematen badute. Batzuetan, profesional baten iritziz beharrezkoa izan daiteke esku artean duen zerbaiti buruzko zerbait kontsultatzea beste bati, norbaiten datu konfidentzialari buruz. Kasu horretan, erabateko anonimotasuna bermatuta geratzeko moduan egin badaiteste, horrela egin beharko da. Erabateko anonimotasuna posible ez denean, eragina jasoten duen pertsonaren baimena behar da, eta oinarritzko irizpide batzuk jarraitu behar dira: ahalik eta gutxieneko informazioa jakinaraztea, ahalik eta anonimotasun maila altuenarekin eta dagokion konfidentzialtasuna eskatuz.

Konfidentzialtasun beharra sekretu profesionalarekin ere badago erlazionatuta. Horren bitartez, profesionalak, datu pribatuak zabaltzeko presio desegokirik ez jasateko eskubidea dute.

Konfidentzialtasuna apurtzea

Batzuetan, konfidentzialtasuna nahita apurtzen da, pertsona bati kalte egiteko edo horren kontura onurak lortzeko, baina gehienetan, sekretu beharra apurtzea, portaera inkonstistenten, konturik gabe ibiltzearen edo arintasunez jokatzearen ondorioz gertatzen da. Artxibategietan, eskuzkoetan edo informatikoetan, gordetako datuak behar bezala babesten ez direnean ere apurtzen da.

Konfidentzialtasun beharraren salbuespenak

Betebehar horrek salbuespenak onartzen ditu giza eskubideekin loturiko beste behar batzuekin talka egiten duenean. Horren adibide argia

Legez,
informazioaren
kudeaketa gurasoei
dagokie.
14 urtetik aurrera,
interesatutako
pertsonari.

gehiegikeria sexualak, delituak edo gaixotasun larrien kutsadurak gertatzea saihestea da. Kasu horietan, lehenbiziko aukera pertsonaren baimena bilatzea da, baina aurka agertzen bada, zuzenena, egin behar dena jakinaraztea dela adieraztea edo informazioa dagokionari helaraztea da. Ulertu behar du informazioa erreserbatzeko duen autonomiak, beste batzuei kalte larriak ez eragitearen muga duela. Egoera horien aurrean, profesionalak hartuko du bere gain pertsona horren egitekoa, hau da, pertsonak ez badu betebehar hori betetzen, profesionalaren esku geratzen da bete beharra.

Familien eta ikasleen aurretiazko ezagutza

Oso garrantzitsua da familiek eta ikasleek aurretik ezagutzea beraiekin erlazionatzen diren profesionalen konfidentzialtasunaren nondik norakoa eta mugak, konfidentzialtasun hori bete behar dutela jakiteko eta adierazteko dau den mugak edo modu zehatzak kontuan izateko. Termino horiek ez dituztela ezagutzen sumatuz gero, garrantzitsua da erlazioan sakondu aurretik argitzea.

Dena den, beti jaso behar da familien edo ikasleen iritzia, ze informazio partekatuta nahi duten erabakitzeko ahalmena baitute. Kontuan izan behar dute, baita ere, informazio garrantzitsua

Hezkuntzari dagokionez garrantzitsua da konfiantzan eta lankidetzan oinarritutako harremana bultzatzea irakasleen eta familien artean

gordetzea kaltegarria izan daitekeela euren seme-alabarentzat eta irakaskuntzarako, orokorrean. Adibidez, logikoa da ikastetxeko langileek, eta baita ikaskideek ere, ume batek epilepsia atakeak jasaten dituela jakitea.

Gai horrek, datu jakin batzuk estaltzeko beharri buruzko gogoetara garamatza: beharrezkoa al da ume bat zeliakoa dela ezkutatzea? Horrelako egoerak normalizatu nahi baditugu, erantzuna, jakina, "ez" izango da. Ikasleen sentibilizazioa behar-beharrezkoa da gaixotasun edo abagune pertsonal jakin batzuk ez estigmatizatzeko. Arazoa, horietako batzuk estigmatizatzailezt hartzen direlako eta konfidentzialtasunaren alorrera eramaten direlako sortzen da baina, salbuespenak salbu, hobere-na zerbait natural gisa hartzea da.

Ez dago errezetarik.

Egoera bakoitzean etikaren dinamika deliberatiboa aplikatzea komeni da.



Konfidentzialtasuna eskubideen ikuspuntutik

Abiapuntu gisa, “Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala”, “Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen babeserako Europar Hitzarmena” eta “Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa” bezalako nazioarteko arauetatik sortutako alor horretako arautegi-esparru klasikoa hartuta, konfidentzialtasunak oinarrizko eskubide kategoria hartzen du, baita adin gabe koentzat ere, urritasun egoera izan ala ez. Hala ere, ordenamendu juridikoan horrela agertu arren, eguneroko jardunbidean urratzen jarraitzen da adin gabeen kasuan, nolabaiteko adimen urritasuna badute, batez ere. Sarri askotan asmo onez edo betidaniko jardunbideen inertziaz ondorio gertatzen den arren, komenigarria da irakasleek eta taldeek horren inguruko neurriak egituratzea.

Alor horretan, duen garrantzia dela eta, beharrezkoa da 2006ko abenduaren 13an onetsitako “Urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa” aipatzea. Konbentzio horrek oinarrizko giza eskubide kategoriarara, hau da, baztertu ezin daitekeenera, eramaten ditu urritasuna duten pertsonen eskubideak. Garapenean, Konbentzioak, beste batzuen artean, eta printzipio orokor gisa, atxikitako duintasunaren, norbanakoaren autonomiaren eta urritasuna duten haurren gaitasunen bilakaeraren eta nortasuna gordetzeko eskubidearen errespetua ezartzen ditu. Lege horrek, 22. artikuluan, “Pribatutasunaren errespetua” epigrafean, hau dio:

“ 1. Urritasuna duen ezein pertsonak, bizi den lekua edo bizitzeko modalitatea edozein izanda ere, ez du jasoko injerentzia arbitrarioz edo legez kanpoko bere bizitza pribatuan, familian, etxean, postan edo bestelako edozein komunikazio motan, edo bere ohorearen eta izen onaren kontrako bidegabeko erasorik. Urritasuna duten pertsonak, aipatutako injerentzia edo eraso horren aurrean legeak babesturik egoteko eskubidea izango dute.

2. Parte diren Estatuak, urritasuna duten pertsonen informazio pertsonalaren eta osasunari eta birgaitzeari buruzkoaren pribatutasuna babestuko dute, gainerako pertsona guztien baldintza berberekin. ”

Ondorioz, eta konfidentzialtasun eskubi-
deari oinarrizko giza eskubide kategoria
emanda, erantzukizun handia hartuko da
hori lantzeko orduan, eta horrek, aspaldiko

rol paternalistak baztertu behar dituzten
hezkuntza komunitateko kide guztiak inpli-
katu behar ditu.



Konfidentzialtasuna, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera

Ikuspegi horretatik, konfidentzialtasuna gordetzea zerbait erabat konplexua bilakatu da gaur egun. Teknologiaren gorakadak informazioaren hedapenerako euskarri eta plataforma berriak zabaltzea eragin du, eta horrek estrategia berriak martxan jartzea eskatzen du. Informazioa denbora errealean zabaltzen den garai honetan, beharrezkoa da legearen ikuspuntutik izaera pertsonaleko informazioaren eta datuen babesari buruz bete behar diren gutxiengoak azpimarratzea. Puntu horretan, beharrezkoa da adingabeak bereziki zaurgarriak direla azpimarratzea, batez ere inguruneak informazioa partekatzen gonbidatzen duenean, eta ez dutenean argi bereizten ezagunak dituzten beste pertsona batzuen (senideak, adiskideak edo irakasleak) esku jar dezaketen eta ezezagunak dituzten pertsonen esku utzi dezaketen informazioa. Azken horien artean daude sare sozialetako adiskideak. Orokorrean, ez dute beraien buruari buruzko informazioa "kontratzeak" edo "argitaratzeak" duen arriskuaren sentazio hori. Hori eskolako testuinguruan ere hartu beharko litzateke kontuan.

Beharrezkoa da izaera pertsonaleko datuak era egokian lantzeko oinarriak ezartzea eremu guz-

tietan, eta funtsezkotzat hartzen da familiak eta ikastetxeak euren esfortzuak bateratzea, intimitatea eta konfidentzialtasuna gordetzeko garrantzian eragina duten mezu komunak transmititzeko xedez.

Datuen babesari dagokion arautegia

- *Abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Arautegia onetsi duena.*
- *2016ko apirilaren 27ko Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2016/679 Arautegia (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez, 95/46/CE Arzartaraua (Datuen babeserako arautegi orokorra) baliorik gabe uzten duena.*

Bi arautegi horietan ondorioztatzen da ezin dela izaera pertsonaleko informaziorik gurasoen edo adingabeen beraien baimenik gabe tratatu. Datuen trataera esaten dugunean, datuak jasotzea eta biltzea eta horiek argitaratzea

edo hedatzea ulertu behar da. Baimen hori beharrezkoa izango da euskarri fisikoan jasotako informazioari zein ahoz transmititutakoari dagokienez, informazioaren trataerak informazio hori biltzen edo transmititzen den edozein euskarri hartzen baitu.

Araua ez betetzean ez erortzeko, beharrezkoa izango da informazio konfidentziala beste batzuen eskuetara ez heltzeko beharrezkoak diren neurriekin gordetzea. Beste batzuk edo hirugarrenak, baimendutako informazioaren trataeran interes zuzena ez duten guztiak izango dira. Hori guztia dela eta, beharrezkoa izango da adingabeei dagokien informazioaren trataera zorrotza izatea, norik eta zein unetan hartu behar duen parte definitzeko orduan. Ez da bai-

Izaera pertsonaleko datu gisa ulertzen da pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko zenbakizko, testuko, grafikozko, argazkiko, entzunezko edo beste edonolako informazio oro.

mendu behar informazioaren trataerarekin zeri-kusirik ez duen pertsonaren parte hartzerik, horretan bidezko interesa egiaztatzen ez bada. Halaber, komenigarria da informazio sentsibleena, anonimotasun, kodetze edo datu pertsonalen disoziazio teknikak erabiliz gordetzea, hori posible denean, informazioa intimitatea urratu gabe transmititzeko era seguruenen bidea.

Atal horretan beharrezkoa da, baita ere, informazioa transmititzen den inguruneak bereiztea. Era pertsonalean tratatu behar baldin bada, bilera pribatuetan eta horretarako egokitutako guneetan egin beharko da, inoiz ez jende guztiaren aurrean dauden tokietan.

Informazio idatzia denean, beharrezkoak diren segurtasun neurriekin gorde behar da, beti ere giltzapeko armairuetan edo, informazio digitala denean, sarbideko giltzapean. Dena den, komenigarria da informazioa era anonimoan gordetzeko beharra azpimarratzea, eta komenigarria da, baita ere, ikastetxetik kopiarik ez ateratzea beharrezkoa den kontrolik gabe, informazioaren zainketa bakarra izateko.



3

Kasuen azterketa
eta gogoeta

Atal honetan, FEVAS Plena inclusión Euskadiko Hezkuntza Batzordea osatzen duten profesionalak identifikatutako hamar egoera aztertzen dira. Osatu den diziplina anitzeko taldeari eztabaidatzeko planteatu zaizkion kasu errealak dira: Eguzkiñe Etxabe, FEVAS Plena inclusión Euskadiko eta APNABI-Autismo Bizkaiko Hezkuntza Saileko arduraduna; Lucía Soria, FEVAS Plena inclusión Euskadiko komunikazio teknikaria; Xabier Etxeberria, Deustuko Unibertsitateko Etika Katedradun Emeritua; Rafael Armesto, abokatua eta Plena inclusióneko Jurista Sareko kidea; eta María Villarino, abokatua eta datuen babesean aditua. Ondoren, aditu talde horrek egindako bi lan saioetan lortutako ideia nagusiak laburbiltzen dira.

1. Kasua

IKASTURTE HASIERAKO BILERA

Ikasturte berri bakoitzean tutoreak informazio bilera egiten du ikasgelako guraso taldearekin, programaren berri emateko, klasearen funtzionamendua azaltzeko eta ikasleei dagozkien bestelako gaiak aurkezteko. Testuiguru horretan, aurreikusitako jarduera plana azaltzean, hau dio: *"Jakin dezazuen, ikasgelan autismoa duen ume bat daukagu, eta laguntzaile baten laguntza izango du; jardueretan ikasgelako gainerako kide guztiekin parte har dezan egingo dugu lan. Bestelako haurrekin aritzeko eta egoteko aukera ona dela uste dut. Zuen seme-alabek horren inguruan zerbait esaten badizute esaten dizuet".*

Argiketa hori asmo onez egiten du, eta bere jarrera errespetuzkoa da, baina informazioa, bileran dagoen familiarekin aurretik hitz egin gabe ematen du.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Bi akats hautematen dira, oinarritzkoa, irakasleen klaustroak orientazio gisa erabil ditzakeen irizpideak edo protokoloak definituko dituen ikastetxeko politika falta. Bigarrena, aurretik haur horren familiarekin bilera egin ez izana, familiaren sentsibilitatea ezagutzeko eta baimena eskatzeko. Bilera horretan, tutoreak ahalegina egin beharko luke transmititzeko ona dela beraien seme-alabak hezkuntza-behar bere-

ziak dituela jakitea eta inklusioaren kulturaren sentsibilizatzea, oso gauza garrantzitsuak baita estigma saihesteko. Aurretiazko elkarrizketa horretan haurarentzat hobereana litzatekeena erabakitzeke ahalegina egin beharko litzateke.

- Ikasgelako bileran gaia beste termino batzuetan landu behar da. Adibidez, eskola eredu inklusibo batean oinarrituta lan egiten dela esanez, eta eredu horrek aniztasuna aberastasun gisa hartzen duela eta, ondorioz, ikasgelan, Hezkuntza-Behar Beziak dituzten eta ez dituzten haurrak daudela. Batzuetan, xehetasunek ez dute ezer ekartzen, arazoak baizik.
- Ikuspuntu etikotik, hiru printzipio agertzen zaizkigu: autonomia, pertsona bat bere datu pertsonalen jabea da, eta bere iritzia errespetatu behar da; pertsonaren beraren ontasuna, konfidentzialtasunarekin harmonizatu beharrekoa; eta justizia, haurrak hezkuntzarako duen eskubidea beste haurren eskubidearekin erlazionatu behar da. Kasu honetan tutorea sentsiblea da, ontasunean pentsatu du, bigarren eta hirugarren printzipioak kontuan izanda, baina ez du lehenengoa behar bezala landu eta, ondorioz, logika goitik behera erori da. Borondate onez, informazio zehatz desgokia eman du, gehiegizkoa, saioaren testuingurua kontuan izanda. Beraz, sentsibilizazioaren aldeko apustua egin behar da, baina kontuz, sentsibilitatearekin.

2. Kasua

ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO JARDUERETAN ONARTUTAKO IKASLEEN ZERRENDA

Ikastetxean, eskola orduetatik kanpoko jarduerak antolatzen dira, eta familia bakoitzak bere semea edo alaba egoki iruditzen zaion jardueran apuntatzeko aukera du. Komenigarria da ikastetxeari informazioa ematea, eskariari behar bezala erantzun ahal izateko. Eskola orduetatik kanpoko jardueretarako onartutakoen edo ez onartutakoen zerrenda ikastetxeko informazio oholean argitaratzen da.

Ama batek bere semea onartutakoen artean dagoen ala ez ikustera hurbiltzen denean, zerrendan, umearen izenaren ondoan *“Autista, ez du hitz egiten”* jartzen du. Ama arduratuta eta gaizki sentitzen da, ezagutzen ez dituen beste ama batzuen komentarioak entzuten dituelako.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Akats larria gertatzen da, pertsona argi eta garbi identifikatzen delako, horrela bere fun-

tsezko eskubideak urratuz. Badirudi zentzuzkoa dela egoerak identifikatzeko beste formula batzuk erabiltzea, hain nabarmen izan gabe.

- Zerrendak erosoak dira, baina ez dira jardunbide egokiak. Zerrenda publikoa ez litzateke egin behar, berez arazoa delako. Badaude komunikaziorako beste kanal egokiagoak eta hezkuntza plataforma seguruagoak. Agian lan gehiago emango die irakasleei edo ikastetxeek ez dituzte egiteko jakin batzuk beraien esku hartu nahi, baina gai batzuk eztabaidaezinak dira, ezarri egin behar dira, egin beharrekoak direlako.
- Irakasleek esaten dute familiek ez dituztela mezu elektronikoak zabaltzen eta ez dituztela gutunak irakurtzen, baina beharrezkoa da argi eta garbi izatea bien arteko koordinazioa ezinbestekoa dela hezkuntzarako.
- Ikastetxe batzuek gai jakin batzuei buruzko informazioa emateko erabiltzen duten WhatsApp, erabilera domestikoko aplikazioa da, ez da egokia erabilera profesionalerako.
- Oso garrantzitsua da kalitate printzipioari eustea datuetan. Profesional bakoitzak, biltzen duen helbururako erabat beharrezkoak diren datuak baino ez ditu ezagutu behar. Beste alde batetik, benetan garrantzitsuak direnak jaso behar dira. Gainera, gehiegizko informazioa jasotzea ez da operati-boa hezkuntzaren helbururako.

- Beharrezkoa da erantzukizuna noren esku dagoen gaiari buruz gogoeta egitea. Kasu jakin honetan IGErena izan daiteke.
- Ezinbestekoa da gaizki ez egitearen printzipioa gogoratzea. Ezin da informazioa eman norbait kaltetuz. Agian asmo onez jarduten da, baina ez da autonomia printzipioa errespetatzen.
- Idatzitakoaren garrantzia. Aurreko kasuan, komunikazioa ahozkoa da eta informazioa ez dago garbi. Zerrendan, informazioa zehatza eta publikoa da, eta erregistratuta gertzen da.
- Komenigarria da gure ekintzen ondorioetan gehiago pentsatzea.

3. Kasua

ETXEA-IKASTETXEA KOMUNIKAZIO KOADERNOA

Etxea-ikastetxea koordinazioa beharrezkoa da ikasleen beharrei erantzutera zuzendutako esku-hartze egokirako. Sarri askotan "koaderno bidaiariaren" bitartez egiten da. Koaderno horretan familiak haurren eguneroko jardunari buruzko alderdi interesgarriak idazten ditu, hitz egitea eska dezaketen gaiak edo ikaslearen egoera emozionala mar-

ka dezaketen gai garrantzitsuak. Ikastetxearen aldetik, jarduerako alderdi esanguratsuak aipatzen dira.

Familia batek jakin du korridoreetan irakasle batek koadernoko oharra irakurri eta beste irakasle batzuekin komentatzen dituela, ikasle talde bati hau esaten entzundionean: *"(Ikaslearen izena)(e)k ez du etxean gosaltzen bere ama alperra delako eta ez diolako gosaririk ematen"*.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Familia-ikastetxea komunikazio egokia positibo da eta justifikatuta dago, baina euskarri hori oso zaugarria da, izaera intimoa duten datu sentzibleak dituelako eta, ondorioz, arazoak planteatzen dituelako ikuspuntu etikotik eta juridikotik. Horrez gain, testu idatziak duen arriskua ere gehitzen da. Edozeinek, une jakin batean, eskura dezake (beste haur batzuek, autobuseko gidariak...). Datuen Babeserako Legearen ikuspuntutik tresna sakrifikagarriena da, ezin da leku batetik bestera doan informazio sentziblerik zehaztu, galtzeko arriskua baitu. Ikastetxeak oso erantzukizun garrantzitsua hartzen du bere gain ez badu adingabeari zuzenean eragiten dion informazio

hori babesteko segurtasun araurik ezartzen.

- Edukiari buruzko gogoeta egitea. Beti dago informazioa era aseptikoan idazteko aukera, adibidez, "bilera bat izan nahiko nuke zure seme-alabari buruzko gai bat lantzeko". Ez da inoiz informazio espliziturik eta garrantzitsurik jaso behar, segurtasunarengatik eta errespetuarengatik, eta are gehiago adingabeko baten jokaera gaitzesgarri bat zehaztu, modu desegokian interpretatzeko arriskua baitago.
- Koaderno hori anonimo bilakatzeko sistema bat egitura daiteke, baina horrek zailtasunak eragin ditzake ikastetxean.
- Informazioa beste bide batzuetatik eman daiteke, dei baten edo bilera baten bidez. Horri dagokionez, eraginkorragoa eta egoikiagoa da aldizkako topaketak programatzea familiekin, eskolatzeko prozesuari buruz hitz egiteko.
- Irakaskuntzak irakasleen eta ikasleen arteko konfiantzazko harremana eskatzen du, eta hori apurtu egin daiteke dena gurasoei kontatzen zaiela ikusten denean.
- Komunikazioa era positiboan eta negatiboan eman beharko litzateke, baina beti alderdi garrantzitsuei dagokienez. Irakasleek eta familiekin onartu eta ikusi behar dute xehetasun batzuk ez direla garrantzitsuak. Adibidez, haur batek egun batean postreirik ez jatea ez da garrantzitsua. Bi egunez jan

gabe badago, agian arduratzeko modukoa izan daiteke, eta telefonoz deitu beharko dut, baina ez koaderno batean idatzi.

- Mezu elektronikoak seguruagoak dira, baina ez da komenigarria xehetasunak jakinarazteko erabiltzea. Horien idazketa, koadernoarekin gertatzen den bezala, proportziozkoa eta arrazoizkoa izan beharko da, egoera bat identifikatzeko modukoa, xehetasun gehigarririk gabe, horiek aurrez-aurreko elkarrizketetan emango baitira.

4. Kasua

TELEFONO BIDEZKO INFORMAZIOA

Batzuetan beharrezkoa da hitzordu bat telefonoz ixtea, kasu bat koordinatzeko. Hezkuntza Laguntza Beharrak dituen ikaslearen familiak berak aurretik adostu eta baimendu du (sinadura bitartez) koordinazio hori.

Aholkularitza taldeko kide batek ikastetxe batera deitu du, aholkulariarekin hitz egiteko eskatuz. Telefonoa hartzen duen pertsonak informazio zehatza eskatzen dio, eta idatzi egiten du, aholkulariari emateko. Bere nortasunaren edo karguaren berri eman gabe, galdetzen du: *“Nor da deitzen duena? Ze kasuri buruz hitz egin nahi duzu? Ze gai landu nahi*

duzu?..”. Aholkulariari idatzizko oharra emateko eta hark deia itzultzeko datu horiek behar dituela dio.

Dirudienez ikastetxeko protokoloa da, dei bakoitzari buruzko xehetasunak eskatzea beharrezkotzat hartzen da, dagokion profesionalari eman beharreko oharra eman aurretik.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Zuhurtziaz ez da informaziorik eman behar telefonoz, eta are gutxiago gai konplexua baldin bada, ezinezkoa baita solaskidea zehaztasun osoz identifikatzea. Gai batzuetarako telefonoa bide egokia izan daiteke, baina beste batzuetarako egokiena ikastetxera bertara joatea izango da. Ikastetxeak erantzukizun handia hartzen du informazioa zabaltzen duenean horren eragina jasaten duenaren baimenik gabe. Horrez gain, besteren batek informazio hori era desegokian erabili dezake.
- Deia hartzeko protokoloa sinplifikatu egin behar da. Nahikoa da deitu duen pertsonaren izena jasotzea, berarekin harremanetan jarriko direla esatea eta ohar hori mezu elektronikoz bidaltzea irakasleari. Gainerako datuak interesatuen arteko elkarrizketan landuko dira.

- Telefonoa hartzen duen pertsona ez da konfidentziasun taldeko kide eta, ondorioz, ez du zehaztasunik behar.
- Jakina da ezin daitekeela konfidentziasunezko elkarrizketarik izan behar edozeinek entzun dezakeen inguruneetan (tabernan, korridoreetan, telefonoz, irakasleen gelan...).

5. Kasua

BILERAK FAMILIEKIN

Ikastetxea-familia koordinazioa oso jardunbide egokia da hezkuntza laguntza-behar bereziak dituzten ikasleentzat zein ikasle guztientzat.

Bilera batean, irakasle batek, ikasgelako beste ikasle batekin elkarrekintzarako di-tuen zailtasunak komentatzen dizkio adimen urritasuna duen ikasle baten amari. Bilera horretan, irakasleak beste ikasle horri eta bere familiari buruzko informazioa ematen du, horrela: *“Ume hiperaktiboa da, familia desegituratua du eta asko kostatzen zaio zuen seme-alaba ulertzea, eta enbidia ere badio, oso lagunduta eta babestuta dagoelako. Biak bakarrik dauden uneetan gatazkak sortzen dira.”* Informazio horien aurrean, familiak beste haurraren familiarekin hitz egitea erabakitzen

du, eta ikastetxea gainditzen duen gatazka sortzen da.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Gehiegizko jardunbideak hautematen dira inplikaturiko pertsona guztien aldetik: tutoreak egoera bat familia batekin komentatzeagatik beste familiarekin hitz egin gabe, eta adimen urritasuna duen umearen familiak arazoa beste familiara bideratzeagatik. Beraz, bi familiak eta tutoreak konfidentziasuna apurtzen dute.
- Egokiena, ahal den guztietan, inplikaturiko pertsona guztiak elkartzea da, konponbide adostua ahalegintzeko. Ez da komenigarria familia baten alde egitea bestea baztertuz, arazoa bere kontura konpontzen ahaleginduko baita.
- Hasiara batean, tutorea bi familiarekin hitz egiten ahalegindu beharko litzateke, bakoitzarekin alde batetik, xehetasunik eta inplikatuaren izenik argitu gabe, nahikoa da arazoa azaltzea. Hortik abiatuta konfidentziasuneko erdigunera hurbildu beharko da, bi familiarekin adostuz, arazo horri elkarren arteko lankidetzatik aurre egiteko modua aurkitzeko. Hau da, beti gorde behar da konfidentziasuna eta konfidentziasun zirkulua zabalduz joan behar da.

- Beste behin, beharrezkoa da konfidentzialtasuna eta bi haurren ontasuna uztartzea. Ontasuna bilatzeak bi subjektuen ontasuna era egokian lantzea eskatzen du.
- Nahi gabe datu konfidentzialen bat jasoz gero, haren izaerak berak konfidentzialtasunari eustera behartzen du. Ez zen niregana heldu behar, baina heldu zaidanez, isilpean gorde behar dut.
- Tutoreek gatazketan bitartekari gisa aritzeko gaitasuna izan behar dute edo, bestela, kanpoko bitartekari batek zein neurritan esku har dezakeen ikusi, bitartekari hori konfidentzialtasun taldeko kide bilakatuz. Dena den, jazarpen egoeratan edo bestelako egoera larrietan, esku-hartzea berehalakoa eta premiazkoa izan beharko da.
- Oinarrizko betebeharrak gisa, ikastetxean sortzen diren arazoak ikastetxean bertan konpondu behar dira.
- Komenigarriena positiboetik hastea eta etapak egiten joatea da, pertsona guztien borondate ona bilatuz. Adibide horretan, tutoreak aurretik ikasgelan bere lana egin duela suposatzen da, eta arazoa konpontzeko ezintasuna ikusita, familiak inplikatu dituela. Familiarekin izandako solasak ez badu funtzionatzen, komenigarria da egoera bitartekari baten figuraren bidez desblokeatzea; gatazka judizializatzea azkena da. Ikastetxetan kontuan izan beharreko jardunbide egokia, gatazka jakin batzuen ebazpenerako Barne Batzordeak eratzea da.
- Zuzendaritza taldeek, zintzoak izateko eta gardentasuna transmititzeko asmoan, gehiegizko datuak eman ditzakete, gatazka bat sakontzeko argumentu gehiago emanez. Gardentasuna eta gaizki ez egiteko printzipioa uztartu behar dituzte; gardentasunak beste pertsona batzuen eskubideak kaltetzen baditu, ez du balio, ezin zaio familia bati mesede egin horretarako besteari kaltea egiten bazaio.
- Bat ez etortzea larriago bilakatzen denean, erantzukizunak argitu behar dira, eta zuzendaritzak zehaztasun guztiak ezagutu behar ditu, behar bezala aurre egiteko, inplikazioak aztertzeko, hartu beharreko neurriak proposatzeko, etab. Orduan zabaldu egiten da konfidentzialtasun zirkulu logika.
- Pertsona bakoitza bere ekintzen erantzulea da. Ez da gauza bera esatea "zure seme-alabak arazoak ditu beste ume batekin, ikus dezagun nola konpon dezakegun", edo "Endika gaizki konpontzen da zure seme-alabarekin, familia desegituratua du..." Familiarekin izandako elkarrizketetan ezinbestekoa da animoak lasaitzea eta bat egiteko puntura heltzen ahalegintzea. Hori ezinezkoa bada, kontrola hartuko duen beste pertsona inpartzial baten bitartekaritza bilatu beharko da.

6. Kasua

PROFESIONALEN KOORDINAZIO BILERAK

Ikastetxe barruko eta kanpoko profesionalen arteko koordinazioa jardunbide bikaina da, hezkuntza laguntza beharrak dituzten ikasleen kasuan batez ere.

Horretarako egokitutako gelan egindako koordinazio bilera batean, irakasleak sartzen eta irteten dira, eta esandako guztia entzun dezakete. Bat-batean, bilerara deituta ez dagoen irakasle bat sartu, elkarri-zketa entzun eta esaten du: *“A ze interesgarria! Asperger sindromea duen haurrari buruz hitz egiten ari zarete. Hemen gelditu eta, horrela, berari buruz gehiago jakin dezaket, gainera, sindrome hori asko interesatzen zait”*. Bileran eser-tzen da eta inork ez dio ezer esaten.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Positiboa da talde bat osatzea, baina era egokian definitu behar da. Ez da arbitrarioa profesional batek edo beste batek osatzea. Taldetik kanpoko pertsona bat ezin daiteke entzule gisa geratu, beste helbururik gabe.

- Konfidentziasun taldea leku egoki batean elkartu behar da. Ezin dira datu konfidentzialak eman beste pertsona batzuk egon daitezkeen testuinguruetan. Larria da portaera hori zerbait natural gisa hartzea. Konfidentziasun taldearen esanahiaren inguruan kontzientziarik ez dagoela haute-maten da.
- Irakasleak jarrera buruarina du. Irakasleak, eta baita taldeak ere, urritasunak dituzten pertsonak ulertzeko duten modua haute-maten da.

7. Kasua

TUTOREARI EMAN BEHARREKO ERREKADUAK

Matematikako irakaslea bere ikasgaia ematen ari da, ikastetxeko idazkariak atea ireki eta atetik hau esaten duenean: *“Mariaren amak deitu du, histerika samar. Ez dakit oso ondo nork duen arazo gehiago, amak ala alabak. Tarte-txo bat duzunean, deitu iezaiozu”*. Atea ixtean, ikasgelako ikasle guztiek barre egin eta urritasuna duen ikaskideari begiratzen diote. Irakasleak ezin du klasea ematen jarraitu, eta egoera horretan bitartekaritza lana egi-tzen ahalegintzen da.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Beste ezer baino lehen, sen ona eta zentzuna nagusitu behar da. Sentsibilitate falta eta gehiegizko konfiantza izugarriak haudematen dira, agian ohikoa delako gauza jakin batzuk gehiegizko "naturaltasunez" lantzea.
- Klasea etetea jardunbide desegokia da. Larrialdiren bat baldin badago, egokiena irakaslearengana hurbildu eta: "irten al zaitzke une batez?" galdetzea da. Ikasgelatik kanpo argituko dira xehetasunak, umeek entzun gabe.
- Beste akats bat balio epaia ematea da, oinarrizko eskubideen kontrakoa da. Bar-kaezina da beharrezko datu bat ematea eta balorazio bat egitea nahastea.
- Profesionaltasunez jardun behar da. Ama bat gogaikarria izan daiteke, baina elkarrizketa profesionaltasunean oinarrituta bideratu behar da. Ze mezu objektibo jakinarazi behar diren, nori eta nola, aztertu.
- Informazioa zaintzeko beharra dago. Norbanako jokaera horretan ikastetxeko jokae-
ra orokor desegokia haudematen da. Jokae-
ra horiek ebaluatu eta protokolo egokiak egituratu beharko lirateke.
- Komenigarria da hizkuntzaren garrantziari buruz sentsibilizatzea, eta beharrezkoa da hezkuntzan arlo hori aurreikustea. Ikasleak ikusten duena ikasten du eta, ondorioz, ikastetxeak eredugarri izan behar du.

8. Kasua

IKASTETXETIK KANPOKO SOLASALDIAK

Batzuetan, **profesionalek euren irakaskun-
tza lanaren eguneroko jardunari buruzko
elkarrizketak izaten dituzte ikastetxetik
kanpo.**

**Familia bat arduratuta joan zen elkarte bate-
ra, auzokide batek egin zizkion aipamenak
zirela eta. Dirudienez, auzokidea kafea har-
tzen ari zen, eta ikasgela bateko datu zeha-
tzei buruz hitz egiten ari ziren irakasle ba-
tzuen elkarrizketa entzun zuen. Izenak eman-
ten zituzten eta, ondorioz, auzokideak nori
buruz ari ziren hitz egiten jakin ahal izan
zuen.**



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Ikastetxetik kanpo irakasleen artean edo adiskideekin izandako elkarrizketa informa-
letan ikasle bati buruzko informazio intimoa
eman daiteke, konfidentzialtasuna apurtuz.
Etikaren ikuspegitik onartezina da, zuhur-
tzia ezinbestekoa da, eta ikuspuntu juridiko-
tik legea argia da, LOPDaren 10. artikulua
xedatzen duenez, "izaera pertsonaleko da-

tuak dituen profesional orok sekretua gorde behar du”.

- Leku batzuk guztiz desegokiak dira gai jakin batzuei buruz hitz egiteko.
- Akatsen baten ondorioz datu konfidentzial bat jasotzen bada, datu hori gorde egin behar da.

9. Kasua

IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOAREN ESKURAGARRITASUNA

Ikastetxeko jantokian ikasle bakoitzak panel bat du bere mahaiaren ondoan, eta bertan bere irudia, izena eta bere elikaduraren jarraibideak adierazten dira: izan behar duen gorputz-jarrera, testura mota janarian eta edarian, tresnak, teknika eta oharrak. Ikasle bakoitzak, jarraibide horiek ezagutzen dituen pertsona bat du esleituta ikasturterako baina, pertsona hori ez badago, informazioa ondo ikusten den lekuan erakusten da, arreta egokia emateko xedez.

Lehen ikasle bakoitzaren fitxak zituen koadernoan erabiltzen zen, eta jantokiko armairu batean gordetzen zen. Dena den, denborarekin ikusi zen ordezko guztiek ez zutela horiek irakurtzeko denborarik hartzen. Pro-

zedura horrek konfidentzialtasuna errespetatzen zuen, baina eskura ez zegoenez, ez zuen bermatzen profesional guztiek beharrezkoak ezagutza izatea. Ikasgela, ikastetxeko ikasleek eta irakasleek erabiltzen dute gehiengan, baina beste helburu batzuetarako ere erabil daiteke eta, ondorioz, informazioa bisiten, familien, mantentze lanetako langileen... esku geratzen da.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Informazio konfidentziala gehiegi zaintzeak kalteak eragin ditzake. Badirudi ez dela arrazoizkoa egoera horretan hainbeste zaintzea, jantokiko hurrek ikusten dutelako beraien ikaskideak janari berezia duela.
- Sekretismoak estigmatizatu eta profesionalen lana zail dezake. Abagune pertsonal batzuk ez direla estigma onartu behar du gizarteak.
- Arau gisa, osasunari buruzko datuak babes maila altua dute. Hala ere, jokaera batzuek estigmatizatzen eraman dezaketela ulertu behar da. Zer du txarrik dieta berezia izateak? Ze abantaila du zure seme-alaba elikagai baten aurrean alergikoa dela ezkutatzek? Konfidentzialtasun maila bera aplikatu behar da katarro batekin edo HIESarekin? Beraz, eta legea horren inguruan argia

den arren, logikak esaten digu egokiagoa dela gai batzuk sentsibilizaziotik lantzea, "etiketa" gehiago ez sortzeko. Ondorioz, ahalik eta konfidentzialtasun gehien, baina eguneroko jarduna kontuan izanda, arrazoizko konponbideak bilatuz.

- Komenigarria da datu batzuk agerian egoitea, osasunerako garrantzitsuak izan daitezkeelako. Soluzio bat, senideek edo adingabeak ikastetxeari datu hori erabiltzeko baimena sinatzea da. Etikaren-pedagogiaren ikuspuntutik oso garrantzitsua da familiak eta adingabea egoera jakin batzuk normalizatzeak duen hezkuntza balioaz kontzientziatzea.

10. Kasua

BOTIKAK HARTZEA

Ikasle batek botika bat hartu behar du eguerdian, eta bere familiaren iritziz hobe da hori zerbait intimoa izatea. Horrela, ikastetxean ekintza horretarako protokolo bat ezarri da eta eguerdiko klasea amaitu baino bost minutu lehenago ikaslearen bila joaten dira, ikaslea zuzendaritzara joan dadin botika hartzera eta, ondoren, jantokira doa. Ikasgelara ikaslearen bila joatean, profesionalak atetik honela esaten dio: *"Benga, pastilla hartzera, bazkaldu aurretik"*, ikaskideek entzuten

dute mezua, hain zuzen ere. Beste umeek pastilla zergatik hartzen duen galdetzen diotela esaten dio haurrak amari, eta ez dakiela zer erantzun. Ez duela botikarik hartu nahi dio, klasetik lehenago irten behar ez izateko.



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- Jardunbidea kontraesankorra da, intimitate ekintza izan nahi du, baina argi eta garbi geratzen da botika hartzeko joaten dela klasetik. Beste alde batetik, pastilla bat hartzea zerbait intimoa al da? Egoera hori, botika jantokian bertan, diskrezioz, zerbait naturala balitz bezala, ematea baino askoz ere deigarriagoa da. Ez du pastillak estigmatizatzen, prozesuak baizik. Haurra nabarmenago geratzen da.
- Haurren bila doan profesionalaren jokaera ez da egokia.
- Ikastetxeak egoera batzuk normalizatu behar ditu, zerbait natural gisa bizi.





4

Jardunbide onerako
orientazioak

Funtsezko printzipioak presente izatea

Irakaskuntzako jardunbidean komenigarria da konfidentziasuna autonomia, pertsonaren beraren ongizatea eta justizia bezalako oinarri-zko printzipioekin harmonizatzea. Gaizki ez egitea ahaztu gabe.

Informazioa modu egokian kudeatzea

Baiezkoa gardentasunari, baina informazioa hobe positiboan eta alderdi garrantzitsuetan zentratua, "datuak ematea" eta "balio epaiak egitea" nahastu gabe. Profesional bakoitzak, bere lana behar bezala egiteko beharrezkoa den informazioa baino ez du behar. Pertsona batek akats baten ondorioz datu konfidentzial bat jasotzen badu, datu hori sekretupean gorde behar du.

Puntu honetan gogoratu behar da gai konfidentzialak lantzeko aurrez aurreko komunikazioa izatea komeni dela. Ez da komenigarria informazio zehatza telefonoz ematea, beste aldean

dagoen solaskidea benetan nor den erabat seguruz ez badakigu, ezta beste pertsona batzuek entzun ditzaketen testuinguruetan datu konfidentzialak komentatzea ere. Beste alde batetik, kontuan izan behar da informazio idatzia garrantzia, erregistratuta geratzen baita beti. Informazio plataforma seguruak erabiltzeko ahalegina egin behar da, inoiz ez zerrenda publikoak.


Espediente akademikoen informazioa erreserbatzea

Espediente akademikoek izaera sentsiblea duen informazio pertsonala dute, kalifikazioak, diziplinazko txostenak, osasunari buruzko datuak edo tratamendu egokia behar duten diagnostikoak. Arau orokor gisa, hezkuntza lanerako erabat beharrezkoak diren datuak baino ez dira jaso behar; behar bezala gorde; horren eragina jasotzen duten pertsonen datu horien existentziaren berri eman (datu horietara sartzeko aukera izango dute) eta nortzuk diren datu horietara sartu ohi direnak, horretarako edo beste abagune batzuetan erabiltzeko baimena emanaz.

Bereziki delikatuak dira buru osasunari edo urritasunari buruzko diagnostikoak, estigmatizatu eta diskriminazioa eragin baitezakete. Funtsezkoa da zehaztasunez definitzea zer ezagutu behar duten ikasle horien ikaskideek, eta zer ez.

Konfidentzialtasun politika definitzea ikastetxean eta jarduketa protokoloak diseinatzea

Komenigarria da ikastetxe bakoitzak alor horretako ildo nagusiak ezartzea. Bakoitza bere ekin-tzen arduraduna dela jakin behar da eta, ondorioz, profesionaltasunez jardun behar dela, lasai egonez eta zuhurtzia edo jakituria praktikoa aplikatuz.



Konfidentzialtasun taldeak definitzea ikastetxean

Konfidentzialtasun taldeek definituta eta ondo osatuta egon behar dute, ez da arbitrarioa pertsona batek edo beste batek osatuta egotea. Horri dagokionez, adi egon beharko da konfidentzialtasun eskubidea berariaz errespetatzen ez duten jardunbideen (kalifikazioen esposizioa edo jende aurrean zabaltzea, adibidez), eta baita era inkonszientean edo zuhurtziarik gabe egiten diren beste batzuen aurrean, hezitzaileen edo arduradun instituzionalen artean ikasle baten arazoei buruz irakasleen gelan edo tabernan hitz egitea, adibidez, informazio hori beste pertsona batzuek entzuteko arriskuarekin. Ebaluazio saioetan ere zuhurtziaz jokatu behar da, ezin baitira zabaldu konfidentzialtasunez emandako datuak.

Konfiantzazko harremanak sustatzea familiekin

Familiekin harreman egokia bultzatzea oso ona da hezkuntza prozesurako, eta egoerak judizializatzearen muturrera heltzea saihesten du. Ikastetxean arazo bat sortzen denean, ikastetxean bertan konpondu behar da. Gatazka izanez gero, bitartekaritza lana egin edo konfidentzialtasun taldeko kide bilakatuko den kanpoko bitartekari batengana jo beharko

du profesionalak. Gatazka baten ebazpenean interesatutako pertsona guztiak inplikatu behar dira. Ez da familia baten alde egin behar bestea baztertuz.

Konfidentzialtasuna babestea tutoretzako harremanetan

Tutoreak ikasleei eskaintzen dien norbanako arretak haien bilakaera pertsonalaren jarraipena inplikatzeko du, ikasketa prozesua, zailtasunak, jakin-minak, eskariak eta nahiak, informazio, orientazio eta laguntza beharrak. Harreman horretan sortzen den konfiantza giroaren ondorioz, konfidentzialtasun pean dauden intimitate arloko datuak ager daitezke. Erabateko argitasuna eta errespetua egon behar da ikasleak isilpean gordetzea nahi dituen konfidentzietan dagokienez, autonomia errespetatzeko printzipioarekin bat etorritik.


Konfidentzialtasunaren gaia tutoreak beste taldeko irakasleekin izan behar duen prestakuntza lanaren koordinazioan ere agertzen da. Tutoreak moderatutako plangintza eta ebaluazio saioetan, ikasleen informazio konfidentziala trukatzeko da. Hor, benetan beharrezkoak diren informazioak soilik zabaltzeko irizpidea agertzen da berriro, ikaslearekiko errespetu eta empatia giroan, konfidentzialtasun betebeharraren subjektua irakasle taldea dela oinarri gisa

hartuz. Beste alde batetik, tutoreak hezkuntza alorreko esku-hartze espezifikoaren gainean egiten duen koordinazio eta jarraipen lanean, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleentzako indartze jardueretan edo programazioen doikuntzetan, hori ikasgelan zein neurritan eta nola jakin behar den zaindu beharko du; nola bizi behar den ikasgelako taldean eta, orokorrean, ikastetxean.

Azkenik, konfidentzialtasunaren gaia tutorearen eta familien edo tutelako eragileen arteko harremanetan ere agertzen da. Tutoreak umearen hezkuntza prozesuaren nondik norakoari buruzko informazioa eskainiko du, eta hezkuntza lanerako garrantzitsua den informazioa baino ez du jasoko.

Ez islatu informazio guztia tutoretzako fitxetan

Tutoreak datu batzuk jasoko ditu, espediente akademikoak dituenaren antzekoak diren konfidentzialtasunezko irizpide etikoak bete behar dituen tutoretza fitxan. Horrez gain, dokumentuetan islatzen ez diren beste informazio batzuk ere baditu. Pertsonen arteko edozein harremanetan bezala, oroimenean gordetzen diren alderdiak daude. Idatzita ez dagoen informazio horrek ere konfidentzialtasun betebeharra du.




5

Boli gorria

Irakaskuntzako jardunbidean konfidentzialtasuna gorde ahal izateko, komenigarria da ideia hauek gogoratzea:

Jardunbide profesionalen

- ✓ Irakaskuntza lanbideak konfidentzialtasunera behartzen du.
- ✓ Pertsona bakoitza bere ekintzen ardura-duna da.
- ✓ Kontuan izan beharreko funtsezko printzipioak: autonomia, pertsonaren ontasuna, justizia eta kalterik ez egitea.
- ✓ Asmo onez egiten dena juridikoki zuzena denarekin eta etikarekin uztartu.
- ✓ Konfidentzialtasuna ikasle jakin baten ontasunarekin eta ikasle guztien ontasunarekin uztartu.
- ✓ Profesionaltasunez aritu, lasai egonez eta jardun aurretik gogoeta eginez. Sen ona, zentzua eta zuhurtzia edo jakituria praktikoa aplikatu.



Ikastetxean

- ✓ Ikastetxeak alor horretako bere politika definitu eta protokoloak diseinatu behar ditu. Hala ere, ez dago egoera guztiak konponduko dituen errezeta estandarizaturik. Malgutasuna ezarri behar da.
- ✓ Sentsibilizatzea da egoerak normalizatzeko eta estigma saihesteko tresnarik hobereena.
- ✓ Konfidentzialtasun taldeak definituta eta ondo diseinatuta egon behar dira.
- ✓ Ahal den heinean topaketa pertsonalak bultzatu.

Informazioaren kudeaketan

- ✓ Profesional bakoitzak, bere lana egoki bete ahal izateko beharrezkoa den informazioa baino ez du izan behar.
- ✓ Ez komentatu datu konfidentzialik beste pertsona batzuek entzun ditzaketen inguruetan.

- ✓ Ez nahastu "datuak ematea" eta "balio epaiak egitea".
- ✓ Akats baten ondorioz datu konfidentzial bat jasoz gero, horren izaerak berak konfidentzialtasuna eustera behartzen du.
- ✓ Informaziorako plataforma seguruak erabili. Ez dira zerrenda publikoak erabili behar.
- ✓ Kontuan izan behar da idatzitakoaren garrantzia. Idazkerak proportzionala izan behar du, benetan garrantzitsua dena soilik idatziz; xehetasunak topaketa pertsonalean adieraziko dira.
- ✓ Komunikazioa era positiboan eta negatiboan izan behar da, baina beti ere alderdi garrantzitsuei buruzkoa.
- ✓ Ez eman informazio zehatza telefonoz, solaskidea nor den ziurtasun osoz jakin gabe.
- ✓ Informazio jakin batzuk ez dira idazten espedienteetan ezta tutoretza fitxetan ere, komenigarria da buruan gordetzea.

Gatazken kudeaketan

- ✓ Familiekin konfiantzazko harremanak bultzatzeak gatazkek saihestuko ditu.
- ✓ Gatazka izanez gero, bitartekaritza lana egin edo konfidentzialtasun taldeko kide bilakatuko den kanpoko bitartekari bategana jo.
- ✓ Gatazka baten ebazpenean interesatutako pertsona guztiak inplikatu behar dira. Ez da familia baten alde egin behar bestea baztertuz.
- ✓ Gatazka bat larritzen denean erantzukizunak garbitu behar dira, eta zuzendaritzak xehetasun guztiak ezagutu behar ditu.
- ✓ Arazoa ikastetxean sortzen denean ikastetxean bertan konpondu behar da.
- ✓ Gardentasuna garrantzitsua da, baina ez gara sartu behar gatazkek larriago bilaka ditzaketen xehetasunetan. Gardentasunak gaizki ez egitearen printzipioa errespetatu behar du.

